

## I. ERANSKINA

Deialdi honen oinarri orokorren arabera, alegatutako merezimenduak egiaztatuko dira, kasuen arabera, kontsulta eginez dagokien erregistroetan, administrazio publikoen datu bitartekaritzarako plataforman edo ziurtagiria ematen duen erakundeetan.

Kontsulta horiek kasu guztietan egingo dira, salbu eta eskatzaileak modu arrazoituan horren aurka egin badu eta tratamenduaren ardura duen organoak hori aintzat hartzen badu.

Modu arrazoituan aurka egiten duela adieraziz gero, adierazpen horrekin batera aurkeztu beharko ditu, nahitaez, kontsulta daitezen nahi ez duen agiriak.

Deialdi honetan, deialdia egin duen erakundeak ofizioz egiaztatuko ditu eta/edo espedientean sartuko ditu, interesdunak berariaz kontrakorik adierazi ezean, honako datu hauek (ikus zazpigarren oinarria):

- NAN/AIZ
- Titulu akademikoak, unibertsitatekoak zein unibertsitatez kanpokoak
- Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan inskribatutako euskara ziurtagiriak.
- IVAPen bidez (Administrazio Publikoaren Euskal Institutua) egin eta gainditutako ikastaroen ziurtagiria
- Gidabaimena (DGT)
- IT txartelen ziurtagiriak
- Deialdia egin duen administrazioan egindako zerbitzuak
- Deialdia egin duen administrazioan gainditutako hautaprobak

### DATUAK KONTSULTATZEKO ADOSTASUNA/AURKA EGITEA

.....jaunak/andre  
ak, NAN/AIZ: .....  
zk.dunak, .....  
prozedurari dagokionez, honako hau

ADIERAZTEN DU (markatu dagokiona):

- Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arabera, ez nago eranskin honetan adierazitako datuak kontsultatzearen aurka.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 28.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, informazio hau kontsultatzearen aurka egiten dut:
- Titulu akademikoa
- Euskarako hizkuntza eskakizuna

- IVAPen bidez egin eta gaitutako ikastaroen ziurtagiria
- Gidabaimena (DGT)
- IT txartelen ziurtagiriak
- Deialdia egin duen administrazioan egindako zerbitzuak
- Deialdia egin duen administrazioan gaitutako hautaprobak

Aurka egiteko arrazoiak:

.....  
.....  
.....  
.....

Kontsultatzearen aurka nagoen ondorengo agiriak aurkezten ditut:

.....  
.....  
.....  
.....

....., .....(e)ko .....ren .....(a)

Sin.: